





Teodoro Hernandorena
X. Ipuin Lehiaketa
Zizurkil, 2012

© Zizurkilgo Udala

Lege gordailua: SS-519-2012

Fotokonposaketa eta inprimaketa: antza Komunikazio Grafikoa



aurkibidea

A maila

1go Saria:	Zebra gaixoa Olaia Elgarresta	7
2. Saria:	Bale potoloa Beñat Rica	9

B maila

1go Saria:	Eguzki lorearen sentipenak Enara Oyarzabal	11
2. Saria:	Itsasoa zergatik da gazia? Jose Ramon Berrondo	13
Aipamena	Uda aiton-amonekin Oihane Moreira	15

C maila


1go Saria:	Nire bizitzako penaltia Kimetz Urkola	19
2. Saria:	Ispilu magikoa Jasone Urkola	23

D maila

1go Saria:	Ihintzaren alaba Ariane Obineta	27
2. Saria:	Amets bat egia bihurtzearen desioa Leire Muñagorri	35

E maila

1go Saria:	Gereziendoa loretan Eneritz Iraola	41
------------	--	----





Agur t'erdi:

Maite Toledo eta Jon Martin izan dira A eta B mailetako ipuinak irakurri, aztertu eta irabazleak aukeratzeko lana egin duten idazleak. A mailako 73 ipuin eta B mailako 158.

Yolanda Arrieta eta Edu Zabalak C, D eta E mailetakoekin egin dute lan bera. C mailako 65 ipuin, D mailako 72 eta E mailako 3.

371 lagunek idatzitako 371 ipuin. MILA ESKER. Zuen partaidetzarik gabe ezingo litzateke ipuin lehiaketa hau garatu, ezta hamargarren urtez gauzatu ere. Mila esker idazleei; eta baita irakasle, guraso eta lagunei ere, ziur bainago lanak aurkeztu dituzten idazleek zuen laguntza eta babesa izan dutela. Eta eskerrik asko ipuinak irakurri, aztertu, baloratu eta saridunak izendatu dituzten epaimahaikideei, osatu behar izan ditugun bi epaimahaietako epaimahaikideei.

2002an berria zen Kultura eta Euskara Saila udalean, eta lehiaketa hau martxan jarri zuen, arrakastarik izango zuen jakin gabe. X. edizioa irabazleak dira esku artean dituzunak. Arrakasta izan du, bai!


Teodoro Hernandorena bertsozale zizurkildarraren izena darama ipuin lehiaketa honek. Ahozko literaturaren eta, oro har, euskaren alde egin zuen lana eskertzeko modu xume bat da honako hau, omenaldi txi-

kitzat ere har daitekeena. Bere izen ona zabaltea lortzen badugu gure helburua ederki beteko dugu. Lehena eta oraina lotzea da gure hizkuntza eta literaturaren alde egin dezakegun ahaleginetako bat.

Lehiaketa deialdi hau urtero luzatzearekin euskal literatura lantzea da gure xede nagusia, euskaraz idatzi zein irakurtzeko zaletasuna zabaltea. Gaur egun teknologia modernoak (txatak, e-postak, esamesak...) betiko idazkera zein irakurketa ordeztu omen ditu. Gazteek erabiltzen omen dituzte gehienbat. Aurtengoan, besteetan bezala, nabarmena izan da gazteen parte hartzea. Urterik urte adin maila guztietako idazle asko animatzen zarete parte hartzera. Horretan jarraitzeko bideak jarritzea da gure asmoa!

Liburu hau zure eskuartera iritsi bada, ez galdu aukerarik. Aurtengoan epaimahaiak sari bat hutsik uztea erabaki du, E mailako 2. saria hain zuzen ere. Liburu honetan 9 irabazleak eta aipamen berezia jaso duen hamargarren ipuin bat dituzu.

Ireki liburua, denbora apur bat lasai-lasai hartu eta egun irakurtzea eta idaztea gutxi batzuen eginkizun bada ere, irakurriz goza dezazun desio dizut.

A stylized, handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke extending to the right.

Jose Mª Luengo Zapirain
Zizurkilgo Alkatea



■ A. maila • **1. saria**

OLAIA ELGARRESTA

Zebra gaixoa

Bazen behin zebra txiki bat, bakarrik zegoen. Bere aita eta ama ez zituen aurkitzen. Gaua iristen zenean beldurra izaten zuen eta garrasi-ka egoten zen gau osoan. Goiza iritsi zenean, egarria zuenez, erre kara joan zen ur pixka bat edatera. Ura edan eta gero konturatu zen lokatze- tan sartuta zegoela eta ezin zuela atera. Dordoka txiki bat ikusi zuen eta laguntza eskatu zion.

Dordokak zebrari lagundu nahi zion inguruan zeukan lokatza kenduz, baina ezin izan zuen atera. Egunak eta egunak pasa ziren horrela eta zebra gaixoa ahultzen ari zen.

Egun batean kanario bat agertu zen erreka ondoan eta gure lagunak esan zioten zer gertatzen zitzaien. Kanarioak erantzun zien laguntza bila joango zela handik gertu zeuden elefanteengana.

Txoriak hegan alde egin zuen eta elefante familiari azaldu zien erreka ondoan gertatzen ari zena.

Elefante familia erreka ondora inguratu zen eta elefante handi bat lokatzetan sartu zen eta tronparekin zebra txikia hartu eta lokatzetatik atera zuen lehorrera. Elefanteek buila egin zuten poz pozik eta beraien

tronpetatik ura botaz zebra txikia garbitu zuten eta jateko belarra eman zioten.

Handik aurrera poz pozik bizi izan ziren denak oihanean.



■ A. maila • **2. saria**

BENAT RICA

Bale potoloa

Bazen behin, bale bat eta oso triste bizi zen, oso potoloa zelako. Itsasoko animalia guztiek barre egiten zioten, eta ez zeukan lagunik, izurde txiki bat izan ezik. Egun batean izurdea balearekin zebilela, bale potoloa negarrez hasi zen, eta izurdeak zer gertatzen zitzaion galdetu zion. Baleak potoloa zegoelako denak barre egiten ziotela eta horregatik ez zuela bera beste lagunik, eta horregatik ari zela negarrez .

Baina egun batean gauza harrigarri bat gertatu zen. Itsasontzi bat etorri eta animalia guztiak harrapatzen hasi zen bere sareaz. Denak laguntza eskatzen hasi ziren eta gure Bale potoloak entzun eta izurdearengana joan zen, nola askatu pentsatzeko. Balea eta izurdea korrika joan ziren beste animaliengana, eta han ikusi zuten zer ari zen gertatzen, nola animalia guztiak sarean harrapatuta zeuden. Bat-batean ideia bat izan zuten eta hura egitea pentsatu zuten. Bale potoloa itsasontzia jotzen hasi zen bere indarrik handienarekin, eta horrela sareak askatzea lortu eta animalia guztiak askatzea lortu zuten. Denek eskerak eman zizkioten eta egun horretatik aurrera animalia guztiak bere lagun bihurtu ziren, eta denei ahaztu zitzaaien bale potoloari barre egitea, eta bale potoloa pozik bizi izan zen betiko.



■ B. maila • **1. saria**

ENARA OYARZABAL

Eguzki lorearen sentipenak

Bazen behin eguzki lore bat oso sentikorra zena. Eguzki Lorea kanpin bateko zelaian bizi zen. Denak berari begira egoten ziren hori horia eta distira handikoa zelako. Eguzkia non, harantz begiratzen zuen beti.

Kanpinera, bere gurasoekin oporrak igarotzera, bi ume bihurri iritsi ziren. Mutikoak Xabi zuen izena eta neskak Libe. Xabik bost urte zituen, baxua, ile horaila eta kizkurra zuen. Libek zortzi urte zituen, ile leuna eta beltzarana zuen eta ez zen oso altua. Goiz batean, Xabi eta Libe hase-rretu eta borrokan hasi ziren. Haiek ikusita Eguzki Lorea tristuraz bete zen eta petaloak erortzen hasi zitzaizkion.

Beranduxeago eskutik helduta saltoka, alai-alai bi neska pasatu ziren, Idoia eta Edurne izenekoak. Haiek ikustean Eguzki Lorea hazi egin zen eta distira gehiago zuen.

Geroago bi mutiko, elkarri iseka egiten pasatu ziren. Mikel eta Pedro zuten izena. Berriro ere tristura etorri zitzaion Eguzki Loreari eta distirak alde egin zion.

Hurrengo egunean Amaia izeneko neska txiki batek goxoki bat jan zuen eta lurrera bota zuen papera. Eguzki Lorea, hori ikusita, zimeltzen hasi zen.

Kanpinean bazegoen oso jatorra zen mutiko bat Mattin izenekoa eta Eguzki Loreari kontuak esaten zizkion. Egunero bere aurrera hurbildu, eseri eta kontu kontari hasten zitzaion. Egun batean hondartzan zer ondo pasa zuen esan zion, kometarekin ibili zela eta uretan bainatu. Beste egun batean bizikletaz herritik buelta eman eta igerilekuan bainatu zirela. Eguzki Lorea zimelduta ikusi zuenean triste jarri zen eta galdetu zion:

- Zer gertatzen zaizu?

Eguzki Loreak erantzun zion:

- Umeak, haserre, isekaka eta burrukan ibiltzen direnean tristura sartzten zait eta petaloak erortzen zaizkit eta ingurumena zaintzen ez dutenean zimeldu egiten naiz.

Orduan Mattin kanpin osotik bueltaka hasi zen denei esaten txintxo portatzeko eta natura zaintzeko, bestela belardian zegoen Eguzki Lore politena zimeldu egingo zela. Handik aurrera Eguzki Lorearen aurretik pasatzen zirenean kanpineko umeak txintxo portatu behar zutela eta natura zaindu behar zutela gogoratzen ziren. Tarteka ez zuten natura zaintzen eta ez ziren txintxo portatzen, baina egunetik egunera Eguzki Lorea ikusteak hobeto portatzen eta natura gehiago zaintzen erakusten zien.

Eguzki Lorea distiratsu ikusita kanpineko jendea oso pozik zegoen. Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Zizurkilgo plazan.



■ B. maila • 2. saria

JOSE RAMON BERRONDO

Itsasoa zergatik da gazia?

Aspaldian nire aitonak kontatu zidan istorioa zuei kontatu nahi dizuet. Itsas ertzean ginen eta ura edan nuenean eztulka hasi nintzen. Zer gertatzen zitzaion ur hari? Zergatik zeukan horrelako zapore berezia? Negarrez hasi nintzen eta aitonak bere besoetan harturik ipuin hau kontatu zidan:

Orain dela urte asko, itsasoa ez zen gazia. Uretan sartzen zen mundu guztiari zauri txiki bat baldin bazeukan gaiztotu egiten zitzaion. Andoaingo zurgin bati, bere alaba hil zitzaion, itsasoa sartu baitzen zauri batekin eta gaiztotu egin zitzaion.

Orduantxe zurgin hori hasi zen jo eta ke proiektu batean lanean. Ez zuen nahi beste umerik hiltzea modu horretan.

Hilabete osoa aritu zen lanean, jo zituen orduekin, azkenean, lortu zuen bere gatza egiteko makina martxan jartzea. Trebea zen eta lanari gogoz ekin zioenez emaitza ona izan zen.

Gatza egiteko makina oso sinplea zen: egurrezko kaxa bat eta albo batean barruko mekanismoa martxan jartzeko bira egin behar zitzaion palanka. Harriak sartu eta xehatu egiten zituen, horrela lortzen zuen gatza!

Hasiera batean beraiek eta haien lagunak erabiltzen zuten; gero zurginak lagunak laguntzaz itsasontzi bat egin zuen eta itsasoan barnerratu zen gatz makinarekin. Jo eta ke, hainbeste gatz eginez lortu zuen bere helburua.

Gatza egiteko makina urperatu behar zuenean itsas munstro bat agertu zen eta zurgina eta gatza egiteko makina berarekin eraman zituen.

Handik aurrera itsasoa gatzatua izan zen betiko, eta orain zauriak sendatu egiten ditu. Inork ez daki oso ondo zein zen zurgina, dakigun gauza bakarra pertsona horrek adorea izan zuela da, eta berari esker zauriekin bagaude itsasoko urarekin igurztea oso onuragarria zaigula.



■ B. maila • **Aipamena**

OIHANE MOREIRA

Uda aiton-amonekin

Gaur egun berri bat da niretzat. Oso pozik jaiki naiz nire aiton-amonen etxean egongo naizelako uda osoa. Madrildik oso gertu dagoen landa-etxe bat dute eta etxetik Madril hiriburu osoa ikusten da, tontor txiki baten gainean dagoelako. Nire gurasoek atzo ekarri ninduten eta bi hilabete egongo naiz aiton-amonen etxean, beraiek lan egin behar dutelako, baina ez zait asko inporta. Hemen, Madrilen, oso gustura nago eta oso ondo egoten naiz Kattalin amonarekin eta Montras aitonarekin.

Asko maite ditut eta uste dut beraiek ere maite nautela. Amona Kattalini, Katta deitzen diote denek, asko gustatzen zaio muxuak ematea eta ni harrapatzen nauen bakoitzean hiru edo lau muxu handi ematen dizkit. Aitona Montras serioagoa da, baina denetatik daki, zer edo zer jakin nahi badut aitonarengana joaten naiz eta beti erantzun zuzena dauka.

Landa etxera toki guztietako jendea etortzen da, gehienak familiak aste bat edo 15 egun pasatzera.

Egun batean Bartzelonatik etorri zen familia bat. Nik leihoetatik begiraten nuen nola jaisten zituzten zeramatzaten maletak eta bat-batean

nire adineko neskata batek kotxetik irten eta ni nengoen leihotara begiratu zuen.

-Kaixo, ni Mar naiz eta zu? -galdetu zidan.

-Ni Zuriñe naiz eta uda osoa hemen igaroko dut -esan nuen.

-Zer ondo! Nahi baduzu egunen batean etor zaitezke ibilaldiak egitera.

Egun batzuk pasa ziren eta Mar eta biok oso lagunak egin ginen. Beti elkarrekin toki guztietara joaten ginen eta bere gurasoak eta nire aiton-amonak oso pozik zeuden gu hain pozik ikustean. Ostegun batean, egun osoa jolasten pasa ondoren, landa-etxera gindoazenean, bi gizon arraro ikusi genituen mailetak jaisten. Lau maleta zituzten, bi txuri eta bi beltz, baina haien aurpegiak beldurra ematen zuten.

-Zeintzuk dira bi gizon horiek? -galdetu genion amonari.

-Ez dakit, berriak dira eta esan didate bost egun pasatuko dituztela hemen -esan zuen amonak.

Hurrengo eguneko goiza iritsi zen. Eta nire logelako leihotatik bi gizon arraro ikusi nituen. Mar nire logelara oso beldurtuta sartu zen.

-Zuriñe, oso beldurtuta nago. Gaur goizean gizonen logelaren atea irekita zegoen eta maleta txuri batetik pistola itxura duen zerbait ikusi dut -esan zuen Marek.

-Lasaitu -esan nion nik.

-Ezin dut, oso urduri nago eta -esan zuen Marek.

-Agian txirula bat ikusi duzu eta pistola bat dela uste duzu -esan nuen nik.

-Beno, egia den edo ez ziurtatzeko, amonak jakin gabe, logelara sartuko gara ea pistola bat den edo ez -esan zuen Marek.

Amonaren sukaldera joan ginen eta mahai baten gainean giltzak guztiak zeuden. Giltzak hartu genituen, korrika atera, gizonaren logelara joan, atea ireki eta sartu ginen. Zuriñek maleta zuria ireki eta ah! Zer sorpresa! Hutsa zegoen. Baina ohearen azpian beste maleta txuri bat zegoen, ireki genuen eta bai, pistola handi bat zegoen barruan.

Orduan Mar eta biok logelatik atera eta giltzak zeuden tokian utzi genituen.

-Zer egingo dugu? -esan zuen Marek.

-Ez dakit, baina ezin diogu inori esan logela batean baimenik gabe sartu garelako. Esaten badugu zigortu egingo gaituzte -esan nuen nik.

-Ba ikerketa bat egingo dugu zeintzuk diren jakiteko.

Orduan, hurrengo egunean oso goiz jaiki ginen eta gizonen kotxearen maleteroan sartu ginen inork jakin gabe. Hamar minutu pasa eta gero konturatu ginen kotxea martxan zegoela eta ordu bat geroago gelditu egin zen.

Maleteroan zulo bat zegoen eta gizonak ikusi genituen. Gizonak beste batekin hitz egiten zeuden eta entzun egin genien: “Bihar izango da”.

Kotxea berriro martxan jarri zen eta ordu bat pasa eta gero berriro landa-etxean geunden. Inork ikusi gabe maleterotik atera eta amonarengana joan ginen.

-Baina non egon zarete? Goiz osoa zuen bila egon naiz, kezkatuta nengoen -esan zigun amonak.

-Jolasten egon gara -esan nion nik.

Bazkaldu ondoren Madrilera joan ginen eta poliziarengana joan ginen.

Han bi gizonen argazkiak zeuden paretan eta guk ikusitako eta entzundako guztia poliziari kontatu genion.

-Oso ausartak izan zarete, orain zoazte etxera eta guk egingo dugu guztia -esan zuen polizia batek.

-Bai, baina ez esan amonari egin duguna, bestela zigor handi bat jasoko dugu.

-Ederki -esan zuen poliziak.

Etxera bueltatu ginenean, afaltzera joateko deitu zigun amonak. Afaltzen genuen bitartean, bikote bat etorri zen eta amonari lo egiteko

tokia zegoen edo ez galdetu zion. Amonak baietz erantzun zien eta gu lo egitera joan ginen.

Hurrengo goizean sukaldara jaitsi ginen eta amonak urduri esan zigun:

-Entzun al duzue gaueko zarata?

-Ez, ez dugu entzun -erantzun nion nik.

-Ba, atzo gauean etorri zen bikotea poliziak omen ziren eta etxean zeuden bi gizonak harrapatu zituzten. Badirudi hiltzaileak zirela -esan zigun amonak.

-Ez, gainera oso ondo egin dugu lo -erantzun nion nik.

-Ez zarete ezertaz enteratzen -esan zuen amonak.

Eta gu parrez hasi ginen.



■ C. maila • **1. saria**
KIMETZ URKOLA

Nire bizitzako penaltia

Piiiiiiii! Penalti!

- Hodei bota zuk! — oihukatu du entrenatzaileak.

Nik? Zergatik nik? Denboraldi osoan ez dut golik sartu eta entrena-tzaileak niri esaten dit botatzeko? Ez dakit zer aldetara bota! Eta ate-zainak gelditzen badit baloia? Edo kanpora joaten bada? Ai ama! Zer urduri nagoen!

-Animo Hodei, zukan sinesten dugu! Gogoratu jokoan zer dagoen-esan dit kapitainak.

Egia da! Gure lehenengo liga dago jokoan. Denboraldi oso ona egin dugu eta pena bat izango litzakete irabazteko falta zaigun garaipena ez lortzea. Partiduko azken segundoetan gaude baina garaipenik gabe ez dugu liga irabaziko.

-Tori Hodei, hartu baloia, zorte on! — esan dit Josebak.

Joseba eta ni txikitatik lagunak izan gara eta futbol bizitza batera egin dugu, aurreko lehen taldera batera iritsi arte. A zer oroitzapenak! Haurtzaroan beti eskolan baloiarekin, beti irabazten genuen, hoberenak ginen!

A zer urduritasuna...

Gradetan ez dago ezta eserleku bat ere libre, nire jarraitzaileek ere gol honen beharra dute, beraien animoak entzuten ari naiz denbora guztian eta beraiek nik penalti hau sartuko dudan konfidantza osoa dute. Nire familiak ere konfidantza hori izango duela imajinatzen dut. Hegazkina hartu behar izan dute partidu hau ikusi ahal izateko eta beraiek ere nik gol hau sartzea merezi dute. Etorri direnek bakarrik ez, nire aitona aurreko urtean hil zen eta berak erakutsi zidan futboleko txikitik. Ziur nago nonbaitetik ikusten nauela eta animoak bidaltzen dizkidala. Pena bat da, inoiz ez ikusi ahal izatea ni horrelako zelai handi eta eder batean jokatzeko.

Baloiarekin penalti puntura iritsi naiz eta musu bat eman eta gero bertan jarri dut. Berriz etorri zaizkit urduritasun eta beldur guztiak. Zer gertatuko da ez badut sartzen? Zaleek gorrotatuko naute? Agian taldeetik botako naute horregatik! Ai ama, ematen du nire bizitza hemen bukatzen dela!

Momentu honetan, atea txikiagoa iruditzen zait, baloia kabitu ere egi-ten ez dela, gainera atezaina handiagotu dela iruditzen zait eta beldurra ematen dit. Bere begiradak urduriago jartzen nau, pelikula bateko gaiztoa ematen du begirada horrekin! Kontuan eduki behar da, ligako atezain hoberenetako bat dela, eta dagoeneko penalti mordo bat gelditu dituela aurten.

Beste taldeko zaleak hitz oso itsusiak ari zaizkit esaten, baina horrek gola sartzeko gogo gehiago ematen dit.

Atzeraka pauso batzuk egin ditut, jaurtiketa prestatzeko asmoz.

Zer aldetara botako dut? Ezkerra ala eskuina? Eskuina naizenez tiroa hobeto aterako zait eskuinarekin, baina atezainak badaki ni eskui-na naizela, orduan ezkerrekin botatzea hobe, baina zeinek daki ezkerrekin txarra naiz eta kanpora joan daiteke jaurtiketa.

Gogora etortzen ari zait nire aitonak erakutsi zidan truku hura. Jaurtizera noanean metro bat lehenago geldialdi txiki bat egin, atezaina zer aldetara botatzen den ikusi eta horrela beste aldera botatzeko.

-Bota penaltia. Piii!- esan du epaileak.

Pauso bat, beste bat, beste bat, beste bat, geldialdi bat eta...

-Gooooool!-entrenatzaileak.

-Gooooool!- jokalariek.

-Gooooool!- zaleek.

-Gooooool!- nire familiak.

Eta ziur nago aitona nonbait gol ari dela esaten builaka.

Lortu dut! Gure lehengo liga txapelketa! A zer poza! Zer gogoia dudan kopa hori altxatzeko! Denboraldi osoko garaipena da hau, balio izan du orain arteko lan guztiak. Garaipen hau ez nuke ezergatik aldatuko.

Nire taldekideek besoetan hartu naute eta airean botatzen ari zaizkidan bitartean, zaleak zelaira salto egiten ari dira, gurekin ospatzeko garaipen hau.

-Ari ari ari! Hodei lehendakari! —ari dira buiaka zaleak.

-Zorionak!- esan dit entrenatzaileak.

Bat-batean ohartu naiz ahaztuta nengoela beste taldeko jokalariez eta beraiei eskua eman eta animatzera hurbildu naiz.

-Partidu ona jokatu duzue. Ez da ezer gertatzen, hurrengo partidan zorte gehiago edukiko duzue- esan diot penaltia egin duen defentsari.

-Eskerrik asko eta zorionak partida oso ona egin duzue eta!

Kopa hartzeko ordua, a zer emozioa. Gaurko eguna zoragarria izan da. Istorioa hemen bukatzen da, ni txapelketa ospatzera noala, hainbeste urduritasun eta beldur pasa ondoren merezi dut eta!



■ C. maila • **2. saria**

JASONE URKOLA

Ispilu magikoa

Irene, Adunan bizi zen 12 urteko neskatxo bat zen, oso bizkorra, baina kexatia.

Egunero bezalaxe, astearte hartan Amama Gabrielaren etxera joan zen meriendatzera, ikastolatik atera ondoren.

Amamak galdetu zion, atetik sartzen ikustean bezain azkar:

- Kaixo, Irene, zergatik zatoz hain haserre?
- Euria ari duelako, eta ezin dut klean ibili, ez dago eskubiderik!

Erantzun zuen Irenek muturturik. Amamak, Ireneri ikusarazi zion ez zela ezer gertatzen, bazuela beste gauzaren bat egiterik, irakurri, telebista ikusi, edo jokoren batekin ibili.

Irenek ez zuen amore eman, eta bere portaerarekin jarraitu zuen.

Orduan, Amama Gabriela, gogoratu zuen bere anaia Patxiren pake-tea jaso berria zuela.

- Lagunduko al didazu paketea irekitzen, Irene?

Galdetu zion Amamak.

- Bai horixe!

Erantzun zuen Irenek, beretzako moduko oparia izango ote zen itxaropenarekin.

- Begira, Irene! Ispilu bat da, eta eskutitz bat itsatsita dauka atzeko aldean.

Esan zuen Amama Gabrielak, eskutitza zabaltzen zuen bitartean.

Hala zioen eskutitzak:

“Kaixo Gabriela,

Ispilu hau bidaltzen dizut. Ekuadorreko oihanean oparitu didate, hango tribu batetako kideek, nik beraiei egindako mesede baten truke.

Mutiko batek, istripu baten ondorioz, besoan zauri larri bat zeukan, bizia galtzeko arriskuan zegoen, eta gure botikaz sendatzea lortu nuen.

Bere hizkuntzan, ispiluari “beste leku bateko bizitzak” deitzen zioten. Magikoa zela esplikatu zidaten, eta beraiek, erabili ondoren, oihaneko bizitza onartzen ikasi zutela.

Zuk ere erabilera ona emango diozulakoan, besarkada handi bat,

Munduko Ibiltaria, Patxi.”

Irene, harriduraz beterik, ispiluan aurrean jarri zen, zer gertatuko ote zen ikusteko asmotan.

Baina, bai arraroa! Beste aldean, bere aurpegia ikusi beharrean, bere antza zuen neskatala bat ikusi zuen. Burua kolore biziko trapuaz estalirik zuelarik. Negarrez ari zen:

- Indian bizi naiz, eta ezagutzen ez dudan mutil batekin ezkonduko naute. Nire gurasoak behartsuak dira, eta beraiek horrela erabaki dute.

Irenek, sustoaz begiak itxi ondoren, berriz ireki zituenean, beste neska baten aurpegia ikusi zuen. Hura ere bere antzekoa, baina beltzarana eta ile kizkurrekoa:

- Ni Afrikan bizi naiz. Ez daukagu urik edateko, eta egunero lau ordu oinez egiten ditut, errekatxo baten bila joaten naiz uraren bila. Gero nire anai arreba txikiagoak zaintzen ditut. Ezin dut jolastu, ez ezer ikasi...oso triste nago.

Ireneri begiak malkoz betetzen ari zitzaizkion.

Berriro, ispiluan begiratu zuenean, bere burua ikusi zuen.

Bera zen, baina bere atzekoa aldatuz zihoan: batean, bere familiarekin zegoen piszinan, bestean, bere lagunekin ikastolan, ondorengoan bere gela dotorean...

Orduan, Irenek, esku bero bat sumatu zuen bere besoan...Amama Gabriela bere alboan zegoen:

- Ikusten duzu, Irene? Ispilu magiko honek erakutsi dizu nola izango zen zure bizitza beste herrialde batean jaio izan bazina...zertaz kexatzen zera orduan?

Irene lotsaturik zegoen.

Ondo pentsatu ondoren, zin egin zion Amama Gabrielari esker onekoa izango zela, eta ez zela gehiago txorakeriez kexatuko.

Baita ere, handia egindakoan, bera ere "Munduko ibiltaria" izango zela, eta munduan zehar ibiliko zela beste neskatxo haien modukoei laguntzeko eta beraien bizitza hobetzeko.



■ D. maila • **1. saria**

ARIANE OBINETA

Ihintzaren alaba

Begirada galdu zait, ezerezean. Pentsakor jarri naiz, lau hormen artean. Hogeita hamasei urteko emakume bat naiz, familia dut maite, lagun-en jabe naiz. Gustuko dut goizean jaiki eta mendira joatea. Leku berriak konkistatzea. Goizean txorien txio-txioa aditzea. Mendian arnas garbia hartzea. Zuhaitzetan txantxangorriak ikustea. Urrunean arranoak hegan. Haize garbia sentitzea nire azala ukituz. Lagunekin irri eta algaraka orduak pasatzea. Eguzkia nola desagertzen den ikustea, mendien magalean. Izarrak ikustea, zerupean. Ilargiari kantatzea. Erreka txikiren batean arraina izango banintz bezala igeri egitea.

Baina urteak dira ez dudala mendirik igotzen, txoriak aditzen eta erreketan igeri egiten. Urteak dira lau horma hotz hauen arteko preso naizela, gatibu nagoela. Emakumeen kartzela batean nago, preso. Orain dela denbora asko, laster bederatzi urte izango dira, preso sartu nindutela. Gogoan dut nire herritik hona eginiko bidea. Igandea zen, euritsua eta triste. Goizeko bostak inguru izango ziren, eta herria lainoz estalirik zegoen. Autoan sartu eta hona ekarri ninduten, infernura. Hasiera batean ez nintzen jabetu non sartua nintzen. Banekien ez zela erraza kartzelan egotea, baino inork ez daki zer den hemen egotea, egon arte.

Gogorra da zure bizitza lau hormen artean igarotzea. Eguna, hasi eta bukatu, leku berean egitea. Gogorra da familia egunero ez ikustea, lagunekin ez egotea. Baina hemen nago, nire herritik urrun.

Hemen barruan denetik bizi izan dut bederatzi urte luze hauetan. Hemen barnean adiskideak, etsaiak,... egin ditut igarotako denbora honetan. Presoetako batzuk kartzelaz aldatu eta eraman egin dituzte. Beste batzuk aske izatea lortu dute. Beste batzuk, ordea, bere buruaz beste egin dute, jasangaitza egin zaielako hemengo egonaldia. Liskarrak ere bizi eta sufritu izan ditut. Baina ez liskar soil bat. Lurrera erori eta gorputz guztia zauritu arteko liskarrak. Gelditu ezin diren borrokak. Maitasun historiak ere bizi izan ditugu. Lau hormen artean egon arren gizakiak garelako eta sentimenduak ditugulako, eta maitasuna eman eta maitatzeko aske garelako.

Goizero legez, gaur ere ohetik jaiki eta lau horma eta barrote artean nago. Ez da ezer aldatu bederatzi urte luze hauetan.

Gaur bazkaldu ostean, bisita ordua dut. Egunero ikusten nituen ziega kideak bisita gelarantz joaten. Denak irriz eta negarrez, maitatuen berri jakinik. Denbora da ez dudala bisitarik jasotzen. Hasiera batean, hilero etortzen ziren, lagun eta familia. Baina orain ez dira horrenbeste etortzen. Ulertzen dut, hainbeste kilometroko bidea, berrogeita bost minutuz egoteko.

Gaur ordea bisita nuela esan dit zaintzaileak. Harritu egin naiz, baina irrikitan nago. Zein den ikusteko. Agian nire ama, agian ahizpa, edo osaba, baliteke nire lagun bat izatea. Nork daki, baina irrikitan nago. Bisita bat hemen barruan zauden bitartean jasotzea, kanpoko zati iza-tearen partaide zarela pentsatzen eta sentitzen laguntzen dizu, une bakar batez bada ere.

Zaindaria etorri eta bisita gelarantz eraman nau. Urduri nago. Gelara sartu naiz eta aulki batean eseri. Bat-batean atearen bestaldetik, bera sartu da, lhintza. Ikusi eta negarrez hasi naiz. Bera ikustea gauean galdua dabilenari bidea erakustea baita. Gosez hiltzen denari, eskuak bete jan ematea. Negarrez zotinka dagoenari, besarkada bat ematea... bara ikustea, tunel beltzeko irtenbideko argia, begietan islatzea.

Urteak ziren ez nuela ikusten, gutunen bidez elkarren berri izan dugu, baina denbora zen ez nuela bere berri izaten. Ihintza nire bizilaguna zen, baina ez zen bizilagun soil bat. Nire lagun, adiskide, irakasle...inoiz eduki gabeko ahizpa zaharra zen bera niretzat.

Nire etxeko atearen beste aldean bizi zen bera, hirugarren pisuan, neska alai eta jatorra. Ezin nuen sinetsi bera zenik. Espero gabeko bisita paregabea zen. Baina ez zen bera bakarrik etorri, bere beso zabalen artean, manta artean estalia, haur txiki bat zegoen. Ihintzaren alaba zen.

Baziren bederatzi urte ez nuela umerik ikusten. Hain zen ederra, bere esku zimurtuak, bere behatz txikiak. Bere beso zuriak, bere tripa pottoloa. Bere begirada garbia, bere ezpain ttipiak. Ez nuen ezer esan, besarkaturik egon nintzen denbora luzez, ez bainuen askatu. Negar malkotan itorik. Hain zen ederra ume hura. Hain zen pozgarria bera ikustea. Hiru hilabeteko ume hura. Bera zen han barnean ikusitako gauza politena, infernuko zero zatia.

Ume hura ikustean, begirada argitu eta konturatu nintzen lau horma horien artean sartu nintzenetik dena aldatu zela. Eta ni hemen barruan egon arren, bakoitzak bere bizitzarekin aurrera jarraitzen duela. Mundua ez dela gelditzen birak emateaz, hemen gatibu egon arren. Bisitak, gutunak, deiak jasotzean kanpoko bizitzaren zati naizela pentsatzen dut.

Izaki txiki hura ikustean konturatu naiz, ni ere ume izan nintzela, ez nintzela kartzelan jaio, bizitza egin nuela kanpoan. Txikia ikustean nire haurtzaroa etorri zait burura, bat-batean. Aspaldian ahaztua nuen haurtzaroa.

Gogoan dut Ihintza ez zela bizilagun soil bat niretzat, elkarrekin pasatako une horiek, nire ahizpa zaharra zen Ihintza niretzat. Bere ama, niretzat ama bat zen, nire bigarren ama. Bere aurpegia dut gogoan, une honetan hementxe ikusten dut, nire alboan. Bere ile kiribildua, bere begirada tristea, egunero edukitzen zituen begi zulo haiek. Aho artean edukitzen zuen oliba hezurra biraka. Bere mantal morea, lore bat zuen josita ezker aldean. Bere etxeko zapatila laukidunak. Bere irribarrea, gutxitan ateratzen zuen irribarrea. Berarekin pasatako egunak, urteak.

Arratsaldero etortzen zen nire bila ikastolara, eskutik heldu eta bere etxera joaten nintzen. Sukaldera joan eta telebista txiki baten aurrean jartzen ginen biok elkarrekin horrenbeste gustatzen zitzaizkion telenobelak ikustera. Bitartean mahai gainean egunkaria edukitzen zuen. Bere etxeko txokolatea bezalakorik ez zegoen. Berak egindako albondigak, tipula askorekin, paregabeak ziren. Bere irratia, bere enkarguak, bere bazkariak, ate atariko berriketak...

Txikia nintzenean nire amak ordu asko pasatzen zituen lanean, niri behar nituen gauza guztiak emateko, baina ez zen konturatzen behar nuena maitasuna zela. Eta hori, batez ere Arantxak ematen zidan, egu-nero bere berotasuna eskaintzen baitzidan.

Arantxa zen nire bigarren ama. Gogoratzen naiz, ikastolako lehen egunean, bi motots egin zizkidala, apain-apain joan nendin. Ikastolan egon zen, niri begira. Txikitatik kontatu izan dizkiot nire kontu guztiak. Bederatzi urte bete nituenean eraztun bat oparitu zidan, lore berde batekin. Gogoan dut ez nuela kentzen, txiki geratu arte, eta oraindik gordea izango dut. Hamaika urterekin, nire lehen maitasuna, ni baina zaharragoa zen mutila. Apain-apain jartzen nintzen ikastolara joateko. Egun batean Arantxaren pitxi guztiak hartu eta pitxi guztiekin ikastolara joan nintzen, honela mutilak ederrago ikusiko ninduelakoan. Baina beldurrez ibili nintzen, pitxiak galduko nituelakoan. Berak eman zizkidan aholku guztiak, animo guztiak... dena eskertzen diot berari. Hamahiru urterekin nire lehen muxua, mutil hura musukatu nuen lehen aldia. Bera izan zen lehena jakiten. Arantxarengana joan nintzen korrika dena kontatzera. Nolakoa zen mutila. Nola eman zidan muxu. Abuztuaren 23a, gaueko ordu txikiak. Berarekin buelta bat ematera joan nintzen, ilargiaren gerizpean, eta izarren azpian geundela eserita, muxu eman zidanean. Nire lehen muxua. Zirrien artean, begiak itxi eta paradisua zapaldu nuen, une batez. Hegan ikasi nuen, txori txikia nintzen, erreka zikinen iturri garbia, aurpegi goibel bateko irri izpia.

Iragana ikusi dut une batetik bestera, ume hura ikustean, nire begien aurrean. Ez nuen ikusi nola lhintzari sabela handitzen zitzaion. Ez nintzen medikuarengana berarekin joan. Ez eta behar zituen gauzak emateko bere alboan egon. Ez nuen ikusi ume hura jaiotzen. Haizea du izena. Askatasun Haizea.

Bi emakumeak negar artean hitz egiten egon ginen. Zorionak eman nizkion, umearengatik. Orduan, Arantxaz oroitu nintzen. Berak beti nahi izan zuen amona izan. Hura zen bere ametsa. Hori esan nionean, lhintzari aurpegia aldatu zitzaion. Ez nuen ulertzen, zer egin nuen oker, non sartu nuen hanka. Orduan begiak malkoz bete zitzaizkion, gau euritsu batean erreka lehor baten gisara. Eta nik bitan pentsatu gabe, besar-kada bat eman nion. Ez nekien zer gertatzen zen, historia triste haren atzean historia kontatu zidan arte. Ez nuen sinesten, edo ez nuen sinetsi nahi. Ezin zuen egia izan. Bera ez. Ez nintzen agurtu, eta jada ezingo nuen egin.

Dena kontatu zidan lhintzak, patxadaz. Baziren sei urte hil egin zela. Dena astearte bateko kontua izan zela. Zorabiatu eta medikutara eramanean zutela, anbulantzian. Ingresatu egin zuten, zer zuen jakiteko. Gai-xotasun bat zuela esan zien medikuek, baina egun batzuen buruan etxera joango zela. Egundak batetik bestera jada ez zen ohetik jaikitzen, ez zuen arnasa ondo hartzen. Handik gutxira bota zuen bere azken hatsa.

Negarrez hasi nintzen, ezin nuen sinetsi hura. Oso pertsona maitatua, ez nuen gehiago ikusiko. Negarrez hasi nintzen saminez. Eta bat-batean umea ere negarrez hasi zen.

Lehenago ez nion horrenbesteko garrantzia eman umeari. Baina bederatzi urte ziren ez nuela umerik ikusten, ukitzen, usaintzen. Ez nintzen konturatzen kartzela hartan zeuden preso guztiak emakumeak zirela. Denak, alaba, ahizpa, ama, izeba, amona...zirela.

Bat-batean nire besoekin hartu nuen ume hura. Jarraian, preso, zaintzaile, guarda... guztiak etorri ziren umea ikustera. Denak hartu nahi zuten besoetan. Harritzekoa zen, une hartan, denak, berdinak ginen, umearen aurrean. Ez zegoen presorik, ez eta zaintzailerik, ez eta polizia edo eta guardarik. Denak umeari begira geratu ginen. Ia guztiak, denbora luze batean ez genuen umerik ikusi. Jendea hunkitu egin zen, bata ama zelako, edo beste bat izeba izan zelako barruan zegoen bitartean. Pertsona bakoitzak zuen bere historia. Ume hark bakoitzari irribarre bat jarri zigun aurpegian. Indarra eman aurrera jarraitzeko, pentsatuz kanpoan esperoan genuen guztia, maitatu eta gozatzeko.

Une hartan, pentsakor jarri nintzen. Ume hark egin zezakeena, nik egin ezin nuen guztia baizen. Gazterik eduki nuen amets hura, haurdun geratu eta seme edo-eta alaba bat mundura ekartzekoa. Baina ezin nuen nire ametsa bete, lau horma horien artean. Ezingo dut hainbeste gura nuen etxe zaharra erosi eta nire eskuekin berritzen joan, hormak margotuz, loreak landatuz,... Nire amona eta aitonaren historiak entzun eta beheko suaren ondoan aditu, honela, nik nire ilobei, bilobei, eta seme-alabei, kontatu.... Ezingo dut beti gustatu zaidan lana eduki. Ez eta kanpora joan eta lan hori ikastera. Ezingo dut, hegazkin bat hartu eta mundua ezagutu. Norantzarik gabe ibili, ozeano urdinean zehar. Ezingo dut ikusi nola izarrez betetzen den zeru zabala.

Nire etorkizuna beltz kolorekoa da, ezin baitut aurrerantz begiak irekita begiratu. Bizitza ez zaidalako aldatuko, agian ni aldatuko naiz bai, azala zimurtu, mahaspasa baten moduan, edo ilea urdindu. Begirada tristatu. Baina hemen barruan ez da ezer aldatuko. Betiko lau hormak, betiko barroteak, betiko ohe zaharrak. Errutinan eroritako txingurritxo bat naiz mundu zabalarari begira.

Une batez bederatzi urte hauetan zer egingo nukeen pentsatuz sartu naiz ohera. Ziur nago ez banintz hemen egongo mendian etxe bat edukiko nukeela. Hiru seme alaba edukiko nituzkeela. Ez dakit, gizona edo mutila edukiko nukeen edo bakarti joango nintzakeen bide luzetik. Baina hiru seme-alabaz inguratua. Zaharrena Ekhi, ondoren Izar, eta gazteena, Amets.

Ekhi, zaharrena, eguzkiak eguna argitzen duen bezala, berak niri, nire bizitza argituko lukeelako. Izar, gaua argitzen duelako gauean. Gurekin ez dauden guztien argia piztuko lukeelako berak zeruan. Azkenik Amets, bera jaiotzean beteko baitziren nire bizitzako ametsak. Ziur nago, ikasketak bukatuko nituela eta bidaiatu egingo nukeela, noraezean, tren, autobus, itsasontzi edo hegazkinean, baina urrutira joango nintzela. Nire aitona-amonak maitatuko nituzkeela eta egunero beraien gaztaroko historiak entzun. Ziur nago nire etxeko hormak esaldiz betirik egongo zirela, esnatu bezain pronto umore onez eta irriz esnatu nendin. Badakit belazean loreak bildu eta etxean jarriko nituzkeela,

apaintzeko. Badakit sukaldatzen ikasiko nukeela, Arantxak beti esaten baitzidan berak erakutsiko zidala sukaldatzen.

Baina nire ametsek oraindik hegoak ez badituzte ere, egunen batean ziur nago hegaka hasiko direla, ziega ilun honetatik irten eta ni beraiekin eramango nautela. Orduan nire ametsek pausaleku ugari izango dituzte, koloretsuak bihurtuko dira eta ez dute ez hesirik, ez eta ere mugarik onartuko, askatasun haizea bilakatuko baitira.



■ D. maila • **2. saria**

LEIRE MUNAGORRI

Amets bat egia bihurtzearen desioa

2006ko abuztuaren 19a izan zen nire anaia Oihan atxilotu zuten eguna. Hura bai egun tristea, zoritxarreko eguna. Bazkaltzen ari ginela gertatu zen dena, eguerdiko ordubiak aldera. Ni, etxean nengoen amarekin eta amonarekin, aita aldiz, lanean zegoen. Oihani itxaroten ari ginen denok, unibertsitatetik etorri behar baitzuen. Ordubiak laurden gutxiak izango ziren bera heldu zenean. Lauok mahaian eseri eta amonak, ohikoa den bezala, mahaia bedeinkatu zuen. Amonak bukatu zutenean, bazkaltzen hasi ginen. Oso goxoa zegoen amonaren baratzetik hartu berri nituen tomateen entsalada. Entsalada amaitu, eta berehala, atea jo zuten. Nire ama joan zen atea irekitzera:

-Bai, nor da?

-Ertzaintza! Ireki atea!

Amak atea ireki zuen:

-Zer pasatzen da?

-Oihan Goitia Zurutuza atxilotzera gatoz.

-Oihan? Nire semea? Arrazoen bat egongo da ezta?

-Duela aste bat gertatu zen atentatuaren sortzailea dela uste dugu-lako, komisaldegira eraman behar dugu eta galdeketa bati erantzun beharko dio.

Ama, hitzik gabe geratu zen eta Oihan atxilotzen ari ziren bitartean, ez zen gai izan ezer egiteko. Amona eta ni ere txundituta geunden gertatzen ari zenarekin. Oihani entzun genizkion azken hitzak haiek izan ziren:

-Lasai, ez zaitzte arduratu, ez naiz ni izan. Laster naiz etxean.

Ordur geroztik denbora asko egon nintzen bere ahotsa entzun gabe. Komisaldegian erruduntzat hartu zuten eta atentatu hartan hil ziren bi pertsonen hilketa ere leporatu zioten. Familia guztia lur jota geunden. Ezin genuen sinetsi benetan gertatzen ari zenik.

Ikastola hasteko garaia iritsi zen, irailaren hasiera aldera hain zuzen. DBH2.maila egiten hasi nintzen urte hartan. Ikaskide guztiek aurpegi arraroekin begiratzen ninduten. Mota guztietako isekak entzun behar izan nituen.

-Zer Markel, zer moduz dabil Oihan Madril inguruan?- iseka tonuarekin.

-Zure anaiaren errua izan da dena, horretarako kapaza izan dena zuloan dago ondoen.

Horiek izan ziren esan zizkidaten iseka gutxi batzuk. Ni ez entzunare-na egiten saiatzen nintzen, baina ez zen erraza. Eskerrak benetako lagunak beti laguntzeko prest dauden. Olaia bezalakoak adibidez. Olaia eta ni, beti izan gara lagun minak, beti egon da ni laguntzeko prest eta beti eskaini dit bere sorbalda nire malkoak lehertzeko. Momentu zail hartan ere, bera han zegoen, ni laguntzeko prest. Horrelako lagunak ez dira edozein tokitan aurkitzen, eta ez dut inoiz ahaztu-ko Olaiak nigatik egin duen guztia. Bikote ginela ere entzun behar izaten genuen, baina ez genien kasurik ere egiten; gure artekoa oso harreman estua zen. Konfiantza izugarria transmititzen zidan, berarekin

hitz egitean lasaitu eta gauza txarrak burutik kentzen laguntzen zidan, gaizki nengoenean lagundu eta beti irrifar bat lapurtzen zidan... Ez dakit nola egiten zuen baina berarekin hitz egiten nuenean denbora hegan pasatzen zitzaidan. Berarekin nengoen momentuetan ez zitzaidan inporta inguruan gertatzen zen guztia, maite ninduen norbaitekin nengoelako, eta maite nuen pertsona bat zelako. Irrifarre batekin egun guztia alaitzen zidan. Laburtuz, bera bezalako pertsona bat bilatzen zaila da, maitatzea erraza eta ahaztea oso zaila. Berarekin munduaren amaierara joango nintzateke.

Eguerdiko ordubatak aldera iritsi nintzen etxera eta ez nuen arratsaldean ikastolara bueltatzeko asmorik. Ezin nuen jasan munduaren erdigunea izatea. Denak niri begira. Aste osoa egon nintzen ikastolara joan gabe eta nire anaiari eskutitz bat eta bertso bat idazteko aprobetxatu nuen astea. Aste pare bat igaro ondoren, bere eskutitza iritsi zen, eta bertsoa asko gustatu zitzaiola aipatu zidan. Bertsoa pixka bat hunkigarria zen. Idazten ari nintzenean hainbat malko erori zitzaizkidan orrira, eta tinta apur bat zabaltzen zen malko bakoitzarekin. Ezin nuen denbora gehiago igaro nire anaia Oihan ikusi gabe. Beti izan da erreferentziatzat hartu dudana. Inork imajina dezakeen anaiarik onena edukitzea zortea izan dut, eta ez gintuela inork eta ezerk bananduko esaten zidan gauero, baina ez zuen asmatu. Egun madarikatu hartan banatu ginen. Ez zen egun bat bera ere igarotzen egun hori nire burutik pasa gabe.

Denbora dezente zen Oihan ikusi gabe, gehiegi. Bera gertu sentitzea beharra nuen, bera usaintzekoa, bera ikustekoa, bere ahotsa entzutekoa, bere aholkuen beharra... Nire anaia eta nire arteko harremana beti izan da oso estua. Arazoak konpontzen eta arazoei aurre egiten eta irtenbide bat bilatzen laguntzen zidan beti. Agian ez genuen beti aukera onena aukeratuko, baina akatsetatik ikasten ere erakutsi zidan. Akatsak egitea ona baita, berriro oztopo berdinarekin eror ez zaitezten. Hori zen berak erakutsi zidan gauza garrantzitsuenetakoa bat, eta ez zait inoiz ahaztuko. Berari esker ez bainaiz bi aldiz oztopo berdinarekin erori.

Gabonak iristear zeuden, eta eskatu nuen opari bakarra Madrilera joatea zen. Nire anaia ikusteko, noski. Ama eta aita askotan joaten

ziren Oihani bisitak egitera, baina ni amonarekin geratzen nintzen. Amak, ez zuen nahi nik Oihan egoera hartan ikustea. Baina irabazi arte jarraitu nuen borrokan eta lortu nuen: gabon haietan Oihan bisitatzea joan ginen. Oihan oso aldatuta zegoen, ahulago, bizarrarekin, ile luzearekin, argalago... Baina gauza bat ez zitzaion aldatu; bere irrifar polit hura ikusten jarraitzen nuen bere ahoan. Oso pertsona alaia da, beti besteengatik arduratzen den horietakoa. Gure amonak esaten duen bezala “on puska” bat da.

Ordura arte, herrian egin zituzten manifestazio guztietan azaldu ginen. Oihan, eta bera bezalaxe gainontzeko euskal presoak Euskal Herrira ekar zitzaaten, sufritzen ari ginen familia guztiok gertu senti zitzaigun. Nahiz eta guk ulertu eta jakin atentatueta hil ziren pertsonen familiek gu baino gehiago sufritzen zutela, eta haiek ezingo zituztela inoiz berriro gertu sentitu.

Jada, 2011.urtean gaude eta epaile izateko ari naiz ikasten. Mundu honetan, behar baino injustizia gehiago ikusten ditudalako. Agian nire azalean bizitzen ari naizelako izan daiteke baina ez dut nahi ni bezala beste familia gehiagok sufritzerik.

Bart amestu dudana ez zait inoiz ahaztuko, amets hori egi bihurtzea baita nire desiorik handiena. Ametsean, iratzargailuak goizeko zortzietan jo zuen. Jaiki eta egutegian gorritz markatuta zegoen eguna zen hura. Egun garrantzitsuak bakarrik borobiltzen nituen nik gorritz, urtebetetzeak batez ere. Baina egun hartan ez nintzen gogoratzen noren urtebetetzeak izan zitezkeen. Amonarenak, urriaren 18an ziren, amarenak uztailaren 7an, aitarenak abenduaren 9an, eta Olaiarenak martxoaren 29an. Ez nituen inoiz egun gehiago gorritz biribiltzen. Baina irailaren 13a? Ez nuen ideia zipitzik ere zer gertatzen zen egun hartan. Eguna, beti bezala hasi nuen. Gosaldu, dutxa azkar bat hartu eta unibertsitate-ra joan behar nuen. Eguerdian ere dena beti bezala, baina egun hartan aita etxean zen, jai hartu baitzuen. Bazkaltzen amaitu eta txirrina jo zuten. Aita joan zen atea irekitzera:

-Baí?

-Zer? Ez duzu asmorik atea irekitzeko, aita?

-Aita?

Aitak atea ireki zuen, eta Oihan zen, gure Oihan. Maleta zahar bat lurrean utzi eta gugana etorri zen pozez txoratzen. Denok aho zabalik geratu ginen, txundituta geunden.

Ametsa orduantxe bukatu zen, momenturik onenean, beti bezala. Esnatu naizenean, buruari bueltaka ibili naiz. Galdera bat dut buruan bueltaka. Eguna gorriz nork biribildu ote zuen? Esanahien bat ote zuen? Ez dakit baina egutegira hurbildu naizenean, berdin. Eguna borobilduta dago eta ez dakit zergatia. Ametsa egia bihurtuko ote da? Ez dakit, baina huraxe da nire desioa.



■ E. maila • **1. saria**

ENERITZ IRAOLA

*“Gereziondoak neguko hotza behar du
bere atsedenaldia apurtzeko”*

Gereziondoa loretan

Esku hotzak berriro. Azken aldian sarritan. Eskularruak janzten dituzu, baina berorik ez. Egunero janzten dituzu, agian ingurukoek hotza nabaritu ez dezaten izango da; edo hotza artilez estalita joango dela uste al duzu oraindik? Barruko eta kanpoko hotza. Eskularruen azpian ezkututzen duzun hotza. Eskularruen jokia, hotzaren gisan, errutinaren parte bihurtuz.

Gereziondo bat landatu zenuen bere txokoan, orduak igarotzen zituen baratzaren ertz hartan, mendiei begira, egurrezko aulki txikian eserita. Orain, zu zara egurrezko aulki txikian eseri eta sukaldeko leiho-tik begira egoten dena. Baina zure begiek ez dute bere ertzetik haratago ikusten; mendirik ez. Begira zaudenean, euria egin edo oskarbi egon, euria egin zuela gogoratzen zara. Euria gogotik, eta zure amak behin esandakoa etortzen zaizu burura: “Gizon onak hiltzen direnean

euria egiten du, euri tanta bakoitzarekin lurra busti eta bizi berri bat sortzeko”.

Egunero deitzen dizu alabak, eta larunbatero etortzen da bisitan. Ostiraletan etxea txukundu eta hurrengo eguneko bazkaria prestatzen duzu. Ez da hori larunbaterako prestatzen duzun gauza bakarra. Non-bait oraindik gorderik dagoen mozorroa ateratzen duzu, ama gogor-raren mozorroa, bizitzak aurrera jarraitzen duela dion hori. Lisatu eta prest uzten duzu, hurrengo egunean denen aurrean dotore agertzeko. “Zergatik besteak kezkatu?” Alaba, ez da inozoa, baina amaren ahale-gina ikusita, bera ere antzezten hasten da. Azken finean, bizitza ez al da ba antzerki erraldoi bat?

Pixkanaka, larunbateroko antzezpenak, astean zehar ere egiten hasi zara. Erruki begiradak lehenengo, gajoa diote ingurukoen begiek. Zer moduz zauden galdetzen dizute guztiek, eta eman litekeen erantzun bakarra “ondo” dela esan diozu zure buruari. Ondo esaten duzun bakoitzean noizbait ondo egotera iritsiko zaren esperantza ez duzu galdu behintzat. Ondo diozun bakoitzean baina, Ferminen esana dator-kizu burura “ondo izorratua” esaten zuen berak lanetik umore txarrez itzultzen zenean. “Ondo” hitza hainbestetan erabiltzeaz ere azkenean nazkatu egin zara, eta horregatik etxean geratzea erabaki duzu, beha-rrezkoa denean bakarrik irtengo zara kalera hemendik aurrera. Egune-tik egunera behar gutxiago sentituko duzu. “Zertarako irten, beharrez-ko guztia etxean baldin baduzu?”

Gaur ere etorri da alaba etxera. Sukaldean zaude leihotik begira, eta ez zara ohartu joan den ordu laurdenean zure atzean dagoela. Irratiak eguerdiko hamabietako informatiboaren seinalea eman du, baina ez berak eta ezta zuk ere, ez duzue albisterik entzun. Buelta erdia eman duzu halako batean eta hogeita bost egunean lehenengoz, alabak negarrez ikusi zaitu. Gaur mozorroek ez dute ezertarako balio. Malkoak masailetan, oroitzapen gozo eta gazietan murgildu zarete, negar mal-koen eta barreak eragindako malkoen arteko soka zein estua den sumatuz. Leihotik begira, alabaren ilea ukitzen ari zara, negarrez hasten zenean ekaitza baretu nahi zenuenean bezalaxe eta denborak atzera egin duela iruditu zaizu. “Ama gereziondo horrek ez du batere itxura

onik, kendu eta berri bat landatu beharko zenuke...” Ez diozu erantzun, kantuan hasi zara “loa loa, ttuntturun berde, loa loa maxuxta” Fermini ere abesti hauxe abestu zenion hil aurreko egunetan, lo igaro zituen bi egunetan, horixe nahi zenuen, zure senarra lo gozoak hartzea. Gereziandoari buruz egindako komentarioari ez erantzutea erabaki duzu, berak ez lukeelako ulertuko gereziando horren esanahia.

Egurrezko aulki txikia, eskularruak eta gereziandoa egunero. Gaur ez. Armairuko beheko tiradera zabaldu eta igandetako zapatak atera dituzu, astelehen buru txuri bat izan arren. Ez dakizu zergatik, baina gorputzak hala eskatu dizu. Ezpainetakoa ere eman eta Ferminekin batera egiten zenuen paseoa egin duzu. Biok eseri eta jendeari begira egoten zineten aulkira iritsi zara. Bakarrik zaude, baina ez duzu hala sentitzen, eta berriro ere oroitzapenak dantzan: eseri aurretik egunkari zatia poltsikotik nola ateratzen zuen, “alde ederra harri hotzaren gainean eseri beharrean” esaten zuen beti; laino bat ikusi orduko aterkia hartu edo ez hartu, zenbateko zalantzak izaten zituen; kalera irten aurretik beti ematen zenion muxua eta muxua eman ondoren jartzen zuen aurpegia. Margari eseri da zure aldamenean, eta ezer galdetzerako badaki zertan ari zaren. Bera ere sarritan zu bezalaxe egon izan delako; irribarre bat ezpainetan, ezerezari eta aldi berean guztiari begira. Begiak barrenera begira jarrita.

Eguraldiari buruz, ospitalean dagoen lagun bati buruz, azken heriotzei eta jaiotzei buruz hitz eginez etxeraino lagundu diozu. Zuk ez duzu etxean sartzeko gogorik, haizeak eta eguzkiak zure aurpegian marrazten dituzten lerroek ez dizute minik ematen gaurkoan. Aspal-dian hitz egin ez duzun bizilagunekin egoteko indarra sentitu duzu eta herriko plazara joan zara. Haurrek sortutako iskanbila bizia sumatzen da iskina guztietan. Etxerako bidean, okindegian sartu zara eta itzalek harrapatu zaituzte berriro, eguneko eguzki izpi guztiak beraiekin eramana. Inozoa sentitu zara, inguruko guztiak begira dituzula iruditzen zaizu. Ogia ahaztu eta pauso bizi egin duzu etxerako buelta. Arropak, zapatak kendu eta armairuan ondo gorde dituzu. Ezpainetakoaren arrasto txiki bat geratzen zaizu ezpainetan. Etxeko zapatila zaharrak eta amantala jantzi eta sukaldeko leihoaren aurrean jarri zara. “Behar duen

bezala, beti bezala, egokia den bezala” hiru esaldi horiek errepikatzen dizkiozu buruari. Baina gereziondoa ximel dagoela ohartu zara; lorerik ez, bizirik ez. Auto soinua bat-batean, pauso batzuk eta norbait ate joka. Atea zabaldu duzu eta Antton dago parean. Bere irribarre zabale-narekin zuri begira, okindegian ahaztu duzun ogia dakar eskuan. Bere begiei begira geratu zara, errukirik ez eta bere ahotik galderik ere ez, irribarre zabal bat besterik ez. Ogia etxeraino ekarri izana eskertu eta agur esan diozu. Leihotik begira jarri zara berriro ere, ogia eskuan, ez zara gereziondoari begira ari, Anttonek eskuarekin nola agurtzen zai-tuen begiratzen ari zara. Begiratzen jarraitu duzu bere autoa urrunean galdu denean ere.

Arratsaldeko bostak aldera erabaki duzu, ganbarara igo, pala eskuan hartu eta gereziondoaren alboan zaude. Metalaren soinua lurrean sar-tzean. Lur apur bat irten da lehenengo saiakera honetan. Pala barruan dago, indarra egin eta atera egin beharko zenuke. Baina ez, zuhaitza errotik ateratzea ez da irtenbidea. Edo irtenbidea balitz ere, ez zara hori egiteko gai. Udaberria da, zuhaitzak loretan egon beharko luke, baina neguko jantzia ez du gainera kendu oraindik. Hala ere zuretzat, inguru-ko zuhaitzik ederrena izaten jarraitzen du. Batzuetan errotik aterako zenuke eta besteetan beldurrez gerturatzen zara sukaldeko leihora, zuhaitzak hor jarraitzen duela ikusi arte baretzen ez den urduritasunez.

Zortzi egun egon zara herrira jaitsi gabe, bederatzigarrenean okinde-gira joatea erabaki duzu. Igandetako zapatak eta ezpainetakoa armai-ruan utzi dituzu. Horien ordeaz, eguneroko gona beltza daramazu soi-nean. Okindegiko atea zeharkatu duzu eta Antton dago parean. Irinez zikinduta dauzka masailak. “Zer behar duzu etxekoandre?” galdetu dizu. “Betikoa” erantzun diozu. Ogia eman dizunean zugana hurbildu da eta belarrira zerbait esan dizu. Lotsatu egin zara eta gaztetan beza-laxe, masailak gorritu zaizkizu eta hitzik gabe geratu zara. Txanponak atera eta egurrezko mahai txikiaren gainean utzi dizkiozu.

Etxera itzuli eta ispiluaren aurrean jarri zara. Zure ezpainei begira ari zara. Bekokia zimurtu duzu, “lotsagabea! nola ausartu da ba hori esa-tera?”, baina jarraian komunera joan, ezpainetakoa hartu eta ezpainak margotu dituzu. Bi minutuz zure ezpainei begira egon zara, “agian

arrazoi izango du ezpainetako arrosak ondo ematen didala esan dida-nean". Hamalau segundoz sentitu duzu margoaren gozotasuna ezpainetan, hamabosgarren segundoan, zure buruarekin haserre, ezpainetako kendu duzu ezkerreko eskuaz. Eta ispiluak erakutsi dizun aurpegiak triste dagoen pailazo batenaren antza handia duela irudituzaitu. Ez zaizu gustatu ikusi duzuna. Aurpegia urez garbitu duzu, arrasto guztiak ondo kendu arte eta urarekin batera beste zerbait ere joan da.

Lau udaberri igaro dira dagoeneko eta oraindik ez da inoiz loratu. Errudun sentitzen zara sarritan, zuk baduzulako susmo bat, uste duzu badakizula noiz loratuko den. Batzuetan hobeto sentitu eta haur batek bezala jotzen duzu korrika leihora, adaxketan loreren bat ikusteko esperantzan. Baina lorerik ez. 48 hilabete egurrezko aulki txikiaren gainean egunero eseriz. 48 hilabete bat-batean, zuk ezer egin gabe, zorientasuna zure bizitzaren parte izango dela sinistuz. Hego haizeak bazterrak astintzen ditu gaur, eta zurean ere gogor jotzen du. Gereziendoak ozta-ozta eusten dio. Gerizpean eseri zara, zuhaitzaren enborrari begira jarrita. Zuhaitza hazten hasi zenean, labana txiki bat hartuta, zure senarraren izena eta zurea idatzi zenituen enborrean. Bila jardun duzu, baina ez da bere izenik ageri. Zure izena bakarrik irakurri liteke, senarrarena zuhaitzak desagerrarazi du. Ikusitakoak begiak zabaldu dizkizu. Orain ulertu duzu guztiaren esanahia. Badakizu egin beharrekoa zer den.

Ez da egun batetik besterako aldaketa izango, badakizu. Hala ere, azken lau urteetako aterpetik irteteko gogoia sentitu duzu. Pausoz pauso joango zara, batzuetan bidean eroriz, baina berriro lurretik altxatzeko gogoia duzu orain. Aspaldian galdua zenuen gogoia.

Sarritan joaten zara okindegira. Gustura sentitzen zara Anttonen konpainian. Ulertzen zaituela sentitzen duzu. Begiekin hitz egiten diozue elkarri, okindegia jendez beteta dagoenetan. Eta nerabeen gisara ibiltzen zarete ezkutuan, mihi garratzenen esanak saihestu nahian.

Ez duzu Fermin ahaztu, ezingo zenuke inoiz ahaztu. Baina aspaldian sentitzen ez zenuena sentitzen hasi zara. Ezkutuan hasieran, eta jende-

aren aurrean gero. Zoriontsu bazara zergatik ezkutatu? Jendearen esanei kasu egiten hasi behar al duzu orain?

Kosta zaizu alargunaren jantzia gainetik kentzea, baina orain bizitzeko gogoa duzu berriz. Negua da. Kanpoan hotz egiten du. Elurak bazterrak zuritu ditu. Baina zuk hotzik ez, ez duzu eskularruen beharrik. Diotenez, gereziendoak neguko hotza behar du bere atsedenaldia apurtzeko. Leihotik begiratu duzu eta gereziendoa loretan dago. Sasoitik kanpo dela esango dute batzuek, baina urte sasoiak ere ez al dira aldatzen ari? Gereziendoa fruituak ematen noiz hasiko den itxaroten ari zara orain.

